Osasuna eta Ingurumena

Salud y Medio Ambiente

Mandasko Dukearen Pasealekua, 12 | Tel. 010 - 943481000 | www.donostia.eus
20012 Donostia / San Sebastián

# Ingurumeneko Kontseilu Sektoriala – 25. saioa
## Consejo Sectorial de Medio Ambiente – Sesión 25

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2025ko urriaren 28a**<br>Loretope gela<br>**16:00etan** |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **18:00** |

**GAI ZERRENDA:**
ORDEN DEL DÍA:

| | |
|---|---|
| 1. Aurreko akta onartzea | 1. Aprobación del acta anterior |
| 2. Ibai Ekosistemak | 2. Ecosistemas Fluviales |
| 3. Emisioen inbentarioen bilakaera | 3. Evolución de los inventarios de emisiones |
| 4. Isuri gutxiko eremuaren bilakaera | 4. Evolución de la zona de bajas emisiones |
| 5. Galde-eskeak | 5. Ruegos y preguntas |

**BILERAN PARTE HARTU DUTE:**
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | |
|---|---|
| **KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA**<br>PRESIDENCIA DEL CONSEJO | Aniztasuneko, Inklusioko eta Ingurumeneko Zinegotzi ordezkaria<br>Concejal delegado de Diversidad, Inclusión y Medio Ambiente |
| TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK<br>REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS | m<br>PP<br>Bildu |

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Osasuna eta Ingurumena

Salud y Medio Ambiente

Mandasko Dukearen Pasealekua, 12 | Tel. 010 - 943481000 | www.donostia.eus
20012 Donostia / San Sebastián

| | |
|---|---|
| KONTSEILUKO KIDEAK<br>VOCALES DEL CONSEJO | 1. Kalapie<br>2. EGUZKI<br>3. Ekologistak Martxan<br>4. Cristina Enea Fundazioa<br>5. Emaus<br>6. Aranzadi<br>7. Osasuna eta Ingurumeneko zuzendaria/ Director Salud y Medio Ambiente |
| **ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA**<br>EXCUSARON SU ASISTENCIA | 1, EAJ<br>2, SEO |

| | | |
|---|---|---|
| **UDAL TEKNIKARIAK**<br>PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL | Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren zerbitzuburua | A |
| **PARTAIDETZAREN DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **Emakumezkoak /** Mujeres = 3<br>**Gizonezkoak /** Hombres =8 | |
| **KONTSEILUKO IDAZKARITZA:**<br>SECRETARÍA DEL CONSEJO: | Osasun eta Ingurumeneko lege teknikaria<br>ingurumena@donostia.eus | |

## Saioaren bilakaera:

## Desarrollo de la sesión:

**1. Kontseiluko lehendakariaren sarrera**

Lehendakariak batzordekide guztiak agurtu ditu eta bilerari hasiera eman dio.

**1. Introducción del Presidente del Consejo**

El presidente saluda a todos/as los/las vocales y comienza la reunión.

Mandasko Dukearen Pasealekua, 12 | Tel. 010 - 943481000 | www.donostia.eus
20012 Donostia / San Sebastián

**2. Aurreko akta onartzea**

Bertaratuak akta onartzearekin ados daude.

Eguzkiko ordezkariak Agitiko kalaren gaiari buruz hitz egitea eskatu du, “aurretik hartutako erabakiak arriskuan egon daitezkelako”. Galde-eskeak atalean egitea erabaki da.

**2. Aprobación del acta anterior**

Los comparecientes están de acuerdo con la aprobación del acta.

El representante de Eguzki pide que se hable del tema de la cala de Agiti, ya que «las decisiones tomadas anteriormente pueden estar en peligro». Se decide tratar este tema en el punto de ruegos y preguntas.

**2. Ibai Ekosistemak**

Osasuna eta Ingurumeneko zuzendariak egin du gaiaren aurkezpena.

Donostiako euri uren eta errekastoen proiektua azaldu da, Next Generation Europako dirulaguntzen esparruan garatu dena, klima aldaketara egokitzeko. Finantzaketa-lerro honen helburuak uholdeen aurkako babesa eta eremuen birnaturalizazioa dira.

Lehenago ere egin dira jarduketak. Adibidez, Belartzan Errekatxulo erreka. Birnaturalizatzeko lan horietan, artifizializatutako zatiak kendu eta irtenbide naturalagoak bilatzen dira.

Horrelako lanetarako laguntza handia izan da, 1,5 milioi eurokoa. Horrek % 95 finantzatua izatea suposatzen du. Arazoa epeak bete behar izatea da eta 2026ko martxoan amaituko da dirulaguntzaren epea.

Lanak nahiko aurreratuta daude. Horrela, Miramonen bi baltsa txikitan lan egin da. Obrak 2025eko urrian hasi dira, eta 2026ko urtarrilerako bukatzea aurreikusita dago

Egindako beste lanetako bat Santa Teresa erreka da. Besteak beste, zementua kendu eta hidroereite lanak egin dira.

Aranzadiko ordezkariak gogorarazi du kutsadura handia bada lan mota horrek ez duela asko balio izaten. Santa Teresa errekaren kasuan, hondakinak modu egokian kudeatzen ez dituzten kokagune okupak daudela adierazi du.

Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren Zerbitzuburuak erantzun dio arrazoi duela, Kanpamentuaren gaia oso gai konplexua da, baina ez da osasun eta ingurumen atalaren eskumena.

Ibaetako haltzadia da beste proiektu bat. Lan hau laster

**2. Ecosistemas fluviales**

El director de Salud y Medio Ambiente presenta el tema.

Se explica el proyecto de aguas pluviales y arroyos de San Sebastián, desarrollado en el marco de las subvenciones europeas Next Generation para la adaptación al cambio climático. Los objetivos de esta línea de financiación son la protección contra inundaciones y la renaturalización de las zonas.

Ya se han realizado actuaciones anteriormente. Por ejemplo, la regata Errekatxulo en Belartza. En estos trabajos de renaturalización se eliminan las partes artificializadas y se buscan otras soluciones más naturales.

Se ha recibido una ayuda importante para este tipo de trabajos, 1,5 millones €. Eso supone tener financiado el 95%. El problema es tener que cumplir los plazos y la ayuda termina en marzo de 2026.

Los trabajos están bastante avanzados. Así, se ha trabajado en Miramon en dos pequeñas balsas. Las obras han comenzado en octubre de 2025 y está previsto terminarlas para enero de 2026.

Otro de los trabajos realizados es el del arroyo de Santa Teresa. Se ha procedido, entre otros, a la retirada del cemento y a las labores de hidrosiembra.

El representante de Aranzadi recuerda que si la contaminación es elevada no suele servir de mucho este tipo de trabajo. En el caso del arroyo de Santa Teresa indica que hay asentamientos okupas que no gestionan los residuos de forma adecuada.

La jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad responde que tiene razón. El tema del campamento es un tema muy complejo pero no es competencia de la sección de salud y medio ambiente.

Otro proyecto es la Aliseda de Ibaeta. Este es un trabajo

amaituko da.

Landaredi inbaditzailea kentzeko lanak ere aurreikusten dira. Lehena Luis Villasante parkean, 2026ko martxoa baino lehen, eta bestea Ollola errekan, Barkaiztegi ondoan. Laguntza honekin 3000 $m^2$ inguru garbituko dira.

Laguntzak zabalkunde-ekintzak eta egin beharreko jarraipen-adierazleak ere barne hartzen ditu.

Zabalkunde-jarduerak direla eta, adibidez, Haltzadia birnaturalizatzeko lanen aurkezpena egingo da EHUn, eta bisita gidatuak hainbat jardueratara, baita dibulgazio-jardunaldi bat ere auzotarrekin. Informazio hori guztia udalaren webgunean argitaratu da, komunikabideetan zabaldu da, etab.

Adierazle batzuk ere badaude, hala nola landarediaren hobekuntza, 16.000 $m^2$ irabaziko baititugu, edo uholdeengatik babestutako biztanle kopurua, 1.000 izatetik ia 5.000 izatera igaroko baita.

Bilduko ordezkariak galdetu du ea argi dagoen isuria aparkalekutik datorrela.

Aranzadiko ordezkariak adierazi du, bere ustez aparkalekutik baino aspaldi eginiko betelanetatik datorrela arazoa.

Bilduko ordezkariak aipatu du ere Añorgako Orga errekastoa, nahiz eta dirulaguntzan ez egon. URAK eskatu du berreskuratze lanak egitea. Bizilagunak Bildurekin harremanetan jarri dira eta adierazten dutenez Infernura iristean, bi errekastoak elkarrekin batzen dira eta euri askorekin gainezka egiten du. Uholdeen beldur dira.

Osasun eta Ingurumeneko zuzendariak erantzun dio, oraingoz laguntza hau amaitu egingo dela, baina beste batzuk izango dira eta kontuan izango dela.

Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren zerbitzuburuak ere aipatu du Ura Agentziakoekin hitz egin zela eta jasoak dituztela bi salaketa hiritarrenak. URAkoek ez dute uholde arriskurik ikusten baina bai mantenua egiteko beharra. Zerbitzuburuak esan du hor ere hausnarketa bat egin behar dela, obra ez baita aspaldikoa. Erronka garrantzitsua da egiteko moduak aldatzea.

Zinegotziak esan du Infernuko urbanizazioarekin lotura duela eta errekastoak lotuta daudela. Zuzendariak erantsi du web orrian Donostiako erreka eta errekastoen mapa argitaratuta dagoela.

Aranzadi ordezkariak aipatu du itsasoaren eragina lehen Infernuraino iristen zela, eta ikaragarria dela lekun honetako erreken artifizializazioak dakarren kaltea.

que terminará pronto.

También se contemplan trabajos de retirada de flora invasora. El primero en el parque Luis Villasante, antes de marzo de 2026 y el otro en la regata Ollola, situada junto a Barkaiztegi. Con esta ayuda se limpiarán unos 3000 $m^2$.

La ayuda incluye también las acciones de difusión y los indicadores de seguimiento a realizar.

Con motivo de las actividades de difusión, por ejemplo, se realizará una presentación en la EHU de las obras de renaturalización de la aliseda y visitas guiadas a las diversas actuaciones. así como una jornada divulgativa con el vecindario. Toda esta información se ha publicado en la web municipal, difundido en medios de comunicación, etc.

También hay algunos indicadores, como la mejora de la vegetación, ya que ganaremos 16.000$m^2$ o el número de habitantes protegidos por inundaciones, que pasará de 1.000 a casi 5.000.

El representante de Bildu pregunta si queda claro que el vertido procede del aparcamiento.

El delegado de Aranzadi indica que, a su parecer, el problema viene más de rellenos realizados antiguamente que del parking.

El representante de Bildu también menciona la regata Orga de Añorga, aunque no esté en la subvención. URA ha solicitado realizar las obras de recuperación. Los vecinos y vecinas se han puesto en contacto con Bildu y señalan que al llegar al Infierno, los dos arroyos se unen y se desbordan con mucha lluvia. Temen inundaciones.

El director de Sanidad y Medio Ambiente responde que de momento esta ayuda se va a terminar, pero que habrá otras y se tendrá en cuenta.

La jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad también menciona que se habló con la Agencia Vasca del Agua y que han recibido dos denuncias de ciudadanos. URA no ve riesgo inminente de inundación pero sí necesidad de mantenimiento. La jefa de Servicio dice que ahí también hay que hacer una reflexión, porque la obra no es antigua. Es un reto importante cambiar las formas de hacer.

El concejal comenta que tiene conexión con la urbanización del Infierno y que las regatas están unidas. El director recuerda que en la página web está publicado el mapa de regatas y regatas de Donostia.

El representante de Aranzadi comenta que la influencia del mar antes llegaba hasta el Infierno y el impacto que supone la artificialización de los arroyos de esta zona es muy negativo.

Aranzadiko ordezkariak azaldu duenez, eremu horretan arrain hiruarantza detektatu zen 80ko hamarkadan. Orain ingurua erabat desnaturalizatuta dagoela eta okerrera goazela kritikatu du. Ingurumena berreskuratzeko inbertsioak egin arren, indar urbanizatzailea handiagoa da, eta, beraz, ahalegin horiek sinbolikoak dira.

El representante de Aranzadi explica que en la zona incluso en los años 80 se llegó a detectar el espinoso. Ahora critica que la zona está totalmente desnaturalizada y que vamos a peor. Pese a las inversiones en tratar de recuperar el medio ambiente la fuerza urbanizadora es superior, por lo que estos esfuerzos no dejan de ser simbólicos.

Eguzkiko ordezkariak gogorarazi du, adibidez, Igaran artifizializazioa eta, beraz, lurzoruaren iragazgaiztea izugarria dela, Bentaberrin eta Ibaetan bezala.

El representante de Eguzki recuerda, por ejemplo, que en Igara la artificialización, y por ende la impermeabilización del suelo, es enorme, lo mismo que en Bentaberri e Ibaeta.

Añorgatxikiko eremuaren artifizializazioa ere kritikatu du, errekak Euskotreko trazadura dela-eta ibilgua aldatuta duelako. Urak inbutu txiki bat sortzen du Añorgatxikin, Infernuan eta Bentaberrin zuen hustubidea jada ez delako existitzen.

También critica la artificialización de la zona de Añorgatxiki, donde la regata tiene el cauce modificado debido al trazado de Euskotren. El agua forma un pequeño embudo en Añorgatxiki, porque el desagüe que tenía en el Infierno y en Bentaberri ya no existe.

**2. Isurien inbentarioen bilakaera**

**2. Evolución de los inventarios de emisiones**

Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren zerbitzuburuak aurkeztu du gai hau.

La jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad presenta este tema.

Urtero neurtzen dira berotegi efektuko gasak bai udalerrikoak bai udalarenak ere.

Anualmente se miden los gases de efecto invernadero tanto del término municipal como las del propio ayuntamiento.

Udalerrikoa estimazioa da, udalekoa aldiz neurketetan oinarritzen da eta egiaztatuta dago ISO 14064rekin. Horretarako kanpoko auditoria bat etortzen da bi urtean behin.

La del municipio es una estimación, mientras que la del ayuntamiento se basa en mediciones y está acreditada con la ISO 14064. Para ello viene una auditoría externa cada dos años.

Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren zerbitzuburuak aurkezpenak igorriko dituela adierazi du.

La jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad indica que remitirá las presentaciones.

Udalerriko berotegi gasen inguruan azkeneko estimazioa 2023koa izan zen. 2022ekin alderatuz % 8ko jaitsiera bat egon da bai globala bai biztanleekikoa ere.

La última estimación de gases invernadero en el municipio fue de 2023. Respecto a 2022 ha habido un descenso del 8% tanto global como poblacional.

Emisio gehienak mugikortasunetik datoz, alde handiarekin. Bigarren tokian zerbitzuen sektorea dago, eta hirugarren tokian, berriz, bizitegien sektorea. Lehen sektoreen eta hondakinen inpaktua oso txikia da.

La mayoría de las emisiones provienen de la movilidad con una gran diferencia. En segundo lugar se encuentra el sector servicios y en tercer lugar del sector residencial. El impacto de los sectores primario y de residuos es muy pequeño.

Aurkeztutako inbentarioetan ez da industriarik sartzen. Donostian 2 industria indartsu daude emisioak kontatzeko (Rezola eta Hondakinen balorizazio planta) baina udal politikek industrian gain eduki dezaketen eragina txikia denez, benetan eragina duten arloak hartzen dira kontuan.

En los inventarios presentados no se incluye industria. En Donostia hay solo 2 industrias que computarían para las emisiones (Rezola y la planta de valorización de residuos) pero debido al escaso impacto que las políticas municipales pueden tener sobre la industria, se tienen en cuenta las áreas realmente afectadas.

Bilduko ordezkariari erantzunez Ingurumen zerbitzuburuak azaldu du garraioaren isuriak jaitsi egin direla.

En respuesta a la representante de Bildu, la jefa del Servicio ha explicado que las emisiones del transporte han descendido.

Urte batetik bestera ez da aldaketa handirik.

No hay grandes cambios de un año a otro.

Mandasko Dukearen Pasealekua, 12 | Tel. 010 - 943481000 | www.donostia.eus
20012 Donostia / San Sebastián

| | |
|---|---|
| Garraoiaren bilakaera ere aurkeztu du 2007tik 2023rakoa. Pandemia garaian jaitsiera oso handia egon zen. 2023an pixka bat jaitsi da. Jaitsiera ez da oso nabarmena baina azpimarratzekoa da ez garela itzuli pandemia aurreko mailetara. 2007ko datuekin parekatuta jaitsiera % 36koa izan baita. | También ha presentado la evolución del transporte desde 2007 hasta 2023. Durante la pandemia hubo un descenso muy acusado. En 2023 se ha vuelto a reducir . El descenso no es muy acusado, pero hay que destacar que no hemos vuelto a los niveles previos a la pandemia. Comparado con los datos de 2007, el descenso total ha sido del 36%. |
| Eguzkiko ordezkariak zein hipotesi dauden galdetu du. | El representante de Eguzki pregunta qué hipótesis existen. |
| Horri erantzunez azaltzen du Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren zerbitzuburuak ibilgailuen flota aldatzen ari dela. | En respuesta, la jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad explica que la flota de vehículos está cambiando. |
| Hauek ordea estimazioak dira, ez datu zehatzak. Ihobek ematen du informazioa Gipuzkoan zenbat ibilgailu dagoen eta zenbat erregai kontsumitu den gasolindegietan. Gero Donostian zenbat ibilgailu matrikulatuta dauden . | Estas son estimaciones, no datos exactos. Ihobe ofrece información sobre el número de vehículos que hay en Gipuzkoa y el consumo de combustible en las gasolineras. Luego el número de vehículos matriculados en Donostia. |
| Erregaiak ere hobeak dira eta ibilgailuek gutxiago emititzen dute. | Los combustibles también son mejores y los vehículos emiten menos. |
| Zerbitzuetan, alde batetik kontsumoak zer bilakaera izan duen zehaztu da eta bestetik emisioak. Adibidez argiaren erabilera pixka bat jaitsi da baina argiarengatiko emisioak asko murriztu dira. Hori da batez ere argindarra energia berriztagarrietatik datorrelako. | En los servicios se ha determinado por un lado la evolución del consumo y por otro las emisiones. Por ejemplo, el uso de la luz ha disminuido un poco, pero las emisiones por luz han disminuido mucho, porque la electricidad proviene sobre todo de las energías renovables. |
| Gas naturalaren kasuan erabilera igoera bat egon da, butanoa, gasoleoa etab gutxitu direlako. Isuriak ere baxuagoak dira baina ez da horrenbesteko ezberdintasuna. | En el caso del gas natural ha habido un aumento de uso debido a la disminución del butano, gasóleo, etc. Las emisiones también son más bajas, pero no hay tanta diferencia. |
| Etxebizitzei dagokionez jaitsiera bat eman da bai energia kontsumoan eta gas kontsumoan. Arrazioen bila, esan behar da neguak gero eta epelagoak direla eta udal politikek ere beren eragina izan dutela pentsatu nahi da. Eraginkortasun energetiko ordenantza dela eta 2021-2022 bitartean 3174 lizentzia kudeatu dira eta energia efizientzia baldintzak sartu dituzte. Isolamendu hobe horrek gero behar gutxiago dakar. | En cuanto al sector residencial, se ha producido un descenso tanto en el consumo energético como en el de gas. Buscando las razones, hay que decir que los inviernos son cada vez más templados y se quiere pensar que las politicas municipales también han tenido su influencia. Debido a la ordenanza de eficiencia energética, entre 2021 y 2022 se han gestionado 3174 licencias e introducido requisitos de eficiencia energética. Ese mejor aislamiento provoca que haya menos necesidades. |
| 1/2024 legeak, transizio energetikoarenak berotegi efektuko emisioak %45 jaistea behartzen gaitu eta 2023an % 49 murriztu dugu. Jaitsiera nabarmena da. Baina egia da ere, jaitsiera hau ez dela nahikoa. Europar Batasunak helburu bezela jarri du 2030erako % 55 jeistea eta udalak ere hartu du konpromiso hori Klima eta Energiaren aldeko Alkateen ituna sinatuta. | La ley 1/2024 nos obliga a bajar las emisiones de gases de efecto invernadero en un 45% y en 2023 hemos reducido un 49%. El descenso es notable. Pero también es cierto que esta bajada no es suficiente. La Unión Europea se ha marcado como objetivo bajar el 55% para 2030 y el ayuntamiento también ha asumido ese compromiso con la firma del Pacto de Alcaldías por el Clima y la Energía. |
| Bilduko ordezkariak galdetu du ea zergatik ez diren sartzen aipatutako bi industriak. Zerbitzuburuak adierazi du Udalak ez duela ekoizpen-prozesuan eragiteko gaitasunik Rezolaren kasuan eta balorizazio-plantaren kasuan, Donostiari Donostiako hondakinen sorrerari dagokion zatia aplikatu beharko litzaiokeelako. | El representante de Bildu pregunta porqué no se incluyen las dos industrias mencionadas. La jefa de Servicio indica que es debido a que el ayuntamiento no tiene capacidad de influencia en el proceso productivo para el caso de Rezola y en el caso de la planta de valorización, porque habría que aplicar a Donostia la parte que corresponde a la generación de residuos de Donostia. |

2050rako helburua neutraltasun klimatikoa lortzea izango litzateke, erronka handia dena.

El objetivo para 2050 sería alcanzar la neutralidad climática, lo que es un gran reto.

Bilduko ordezkariak galdetu du Hondarribiko aireportuaren emisioak nork hartzen dituen bere gain.

El representante de Bildu pregunta quién asume las emisiones del aeropuerto de Hondarribia.

Zerbitzuburuak erantzun dio Donostiako inbentarioan ez dela sartzen. Horretarako, emisioen inbentarioa baino udalerriko karbono-aztarna aztertu beharko litzateke, hegazkinez egindako bidaien gaia ez ezik, beste sektore batzuen emisioak ere kontuan hartuta, hala nola arropa-kontsumoa edo erositako materiala. Aztarna ekologiko hori urte batean kalkulatu zen, baina metodologia oso neketsua da eta ezin da urtero kalkulatu.

La jefa del Servicio responde que no se incluye en el inventario de Donostia. Para ello, el vez de un inventario de emisiones, habría que estudiar la huella de carbono del municipio, incluyendo no solo el tema de viajes en avión, sino también las emisiones de otro tipo de sectores como por ejemplo, consumo de ropa, o material comprado. Esta huella ecológica se calculó un año, pero la metodología es muy laboriosa y no se puede calcular todos los años.

Azkenik, egungo tresna erabiltzea erabaki zen. Hutsuneak baditu ere, balio du klima babesteko politiken bilakaera ikusteko.

Finalmente, se decidió utilizar la herramienta actual. Aunque tiene lagunas, sirve para ver la evolución de las políticas de protección climática.

Zinegotziak beste herriekiko konparatiboak badauden galdetu du. eta Osasunaren eta Iraunkortasunaren zerbitzuburuak erantzun dio lor daitezkeela.

El concejal pregunta si hay comparativos con otras localidades y la jefa del Servicio de Salud y Sostenibilidad responde que se pueden conseguir.

Ihoberi ere eska dakioke aireportuei buruzko estimazio bat egiteko, baina zaila da.

A Ihobe también se le puede pedir que haga una estimación de aeropuertos, pero es difícil.

Udal inbentarioa egiteko hainbat sailen kontsumoa hartzen da kontuan.(ibilgailuena, energia, gasa eta hozgailu likidoak): DonostiaTIK, Musika eskola, Donostia Kirola, DBUS, Etxegintza, Anoeta, Donostia Sustapena, Turismo eta Eguzkitza ere barne sartzen dira.

Para la elaboración del inventario municipal se tiene en cuenta el consumo de diferentes departamentos de vehículos, energía, gas y refrigeradores líquidos). También se incluyen organismos como DonostiaTIK, la Escuela de Música, Donostia Kirola, DBUS, Etxegintza, Anoeta, Fomento de San Sebastián, Turismo y Eguzkitza.

Urtero kalkulatzen dira emisioak. Jaitsiera bat dago % 26-27koa. Kalkulu horretan ez da hartu kontuan Udalak sortzen duen energia.

Las emisiones se calculan anualmente. Hay un descenso del 26-27% respecto al año base. En este cálculo no se ha tenido en cuenta la energía que genera el Ayuntamiento.

Aranzadiko ordezkariak galdetu du ea posible izango litzateken Kursaaleko goiko terrazan plakak jartzea.

El representante de Aranzadi pregunta si sería posible colocar placas en la terraza superior del Kursaal.

Zerbitzuburuak erantzun dio bere garaian jarri zirela, baina eraikin pribatua denez, udalak ez duela zuzenean jarduteko gaitasunik. Hasieran, udalak plakak jartzea proposatu zuen, eta Moneo arkitektoa instalazio horren aurka agertu zen. Hala ere, denborak aurrera egin ahala, instalazio fotovoltaikoa handitu egin da.

La jefa de Servicio le responde que se colocaron en su momento, pero es un edificio privado por lo que el ayuntamiento no tiene capacidad de actuación directa. Al principio el ayuntamiento propuso colocar las placas y el arquitecto Moneo se opuso a esta instalación. No obstante, con el paso del tiempo sí se ha ampliado la instalación fotovoltaíca.

Zurriola Maritimo bai da udalarena eta orain dela gutxi jarri da instalazio bat. Hortik hondartzetako kabinetako autokontsumorako energia lortzen da.

Zurriola Maritimo sí es municipal y recientemente se ha realizado una instalación. De ahí se obtiene energía para el autoconsumo en las cabinas de las playas.

Aranzadiko ordezkariak gogorarazi du horrelako instalazioak udal eraikinetan jartzea gehiago bultzatu beharko litzatekeela. .

El representante de Aranzadi recuerda que se debería impulsar más la colocación de este tipo de instalaciones en construcciones municipales.

**4. Isuri gutxiko eremuaren bilakaera**

**4. Evolución de la zona de bajas emisiones**

Osasunaren eta Iraunkortasunaren zerbitzuburuak behin

La jefa del Servicio de Salud y Sostenibilidad presenta la

behineko ebaluaketa aurkeztu du. Behin-behinekoa da, urtebeteko serieak analizatzea komeni izaten delako. Izan ere, alde handia dago aire kutsaduran neguko eta udarako hilabeteen artean.

evaluación provisional. Es provisional porque conviene analizar las series de un año. De hecho, hay una gran diferencia en la contaminación atmosférica entre los meses de invierno y verano.

Zinegotziak aipatu du martxan jarri zenean konpromisoa hartu zela 6 hilabetera datu batzuk eskaintzeko.

El concejal comenta que cuando se puso en marcha se comprometió a ofrecer datos de evolución a los 6 meses de la implantación.

IGEari buruzko ordenantza 2024ko abenduan onartu eta indarrean jarri zen, baina multen atala 2025eko martxoan sartu zen indarrean.

La ordenanza sobre la ZBE se aprobó y entró en vigor en diciembre de 2024, pero el apartado sancionador entró en vigor en marzo de 2025.

Lehen fasea 2027ko abendura arte izango da. Fase honetan etiketarik gabeko ibilgailuak ezin izango dira sartu. Bigarren fasean, 2028ko urtarriletik aurrera, B ibilgailuek ere sarrera murriztua izango dute baldin eta ez badute baimen berezirik.

La primera fase será hasta diciembre de 2027. En esta fase no podrán acceder vehículos sin etiqueta. En la segunda fase, a partir de enero de 2028, los vehículos B también tendrán acceso restringido si no disponen de autorización especial.

Kutsadurari dagokionez, iturri nagusia udalerrian mugikortasuna da eta horregatik kontuan hartu behar diren kutsatzaile nagusiak trafikoari lotutakoak dira, $NO_2$ eta partikulak ($PM_{10}$ eta $PM_{2,5}$ ).

En cuanto a la contaminación, la principal fuente es la movilidad en el municipio, por lo que los principales contaminantes a tener en cuenta son los relacionados con el tráfico, $NO_2$ y partículas (tanto $PM_{10}$ como $PM_{2,5}$ ).

Urtarrilaren 1etik irailaren 30erako arteko epea aztertuta, eta aurtengo 9 hilabete horiek aurreko urteko 9 hilabeteekin alderatu dira. Gero datuak konparatu dira direktibaren eta MOEren mailekin.

Analizado del 1 de enero al 30 de septiembre, estos 9 meses de este año se han comparado con los 9 meses del año anterior. Luego se han comparado los datos con los niveles de la directiva y de la OMS.

Bestalde, kutsatzaileen bilakaera ere aztertzen da urtez urte 2006tik.

Por otro lado, la evolución de los contaminantes también se analiza año tras año desde 2006.

Udalerrian 6 estazio daude, horietako bat Easokoa da. IGEren barruan dago eta horren datuak aztertu dira batez ere.

El municipio cuenta con 6 estaciones, una de ellas es la de Easo que se encuentra en la ZBE.

Kutsatzaileen bilakaera aztertzen duen grafika azaldu du. Grafikoan ikus daitekeenez, NO2-aren mailak behera egin du estazio guztietan. Grafikoan, Europako zuzentarauak eta OMEk ezarritako mailak ikus daitezke. 2023an, hiriko bi estaziok (Easo eta Ategorrieta) Europako zuzentarauan ezarritako mugak gainditzen zituzten. OMEren gida-balioei dagokienez, ia estazio guztiak zeuden hiru kutsatzaileen gainetik.

Explica la gráfica que analiza la evolución de los contaminantes. En la gráfica se puede observar cómo el nivel de $NO_2$ ha ido disminuyendo en todas las estaciones. En la gráfica se pueden ver los niveles establecidos por la directiva europea como la OMS. En 2023 dos de las estaciones de la ciudad (Easo y Ategorrieta) arrojaban promedios por encima de los límites establecidos en la directiva europea . En relación a los valores guía de la OMS casi todas las estaciones se encontraban por encima para los tres contaminantes.

Kontuan izan behar da ere metereologikoki 2024 urte arraroa izan zela. Euri asko egin zuen eta hori ona da aire kalitatearen aldetik.

Hay que tener en cuenta que, meteorológicamente, 2024 fue un año inusual. Llovió mucho y eso es bueno en cuanto a calidad de aire.

Bi erkaketa mota egin dira. Alde batetik 2021etik 2024rako batazbestekoarekin konparatu dira 2025eko irailera arteko datuak, eta bestetik 2024 eta 2025 hilabete berberetako datuak erkatu dira.

Se han realizado dos tipos de comparaciones. Por un lado se han comparado los datos de hasta septiembre de 2025 con la media de los de 2021 a 2024, y por otro se han comparado los datos de los mismos meses de 2024 y 2025.

$NO_2$ kontuan hartuta 2021tik 2024ra datuak zuzentarauak ezartzen duena baina askoz altuagoak ziren. 2024an pixkat

Teniendo en cuenta el $NO_2$ , de 2021 a 2024 los datos eran mucho más altos que lo que establece la directiva. En 2024

jaitsi zen eta uste da 2025ean zuzentaraua betetzea lortuko dela. Baina gogoratu behar da helburua MOEren maila betetzea dela eta oraindik urrun gaude horretatik.

bajó un poco y creemos que en el 2025 se acabará cumpliendo la directiva. Pero hay que recordar que el objetivo es cumplir con los valores paramétricos de la OMS y todavía estamos lejos de ello.

Ategorrietan eta Tolosa hiribidean igoera bat egon da, zuzentarauaren mugen azpitik halere, eta Puion mantendu egin da.

En Ategorrieta y Avda. Tolosa ha habido una subida, aunque por debajo de los límites de la directiva, y en Puio se ha mantenido.

Datuak Kontseilu kideei emailez bidaliko zaizkie.

Los datos se remitirán por email a los miembros del Consejo.

$PM_{10}$ partikulen eboluzioa ez da hain argia. Partikulak ibilgailu edo beste iturrietatik etor daitezke (obrak, Saharako airea...). Adibidez aurten Saharako aire-gertakari gehiago ditugu iaz baino.

La evolución de las partículas $PM_{10}$ no es tan clara. Las partículas pueden proceder de vehículos u otras fuentes (obras, aire del Sahara...). Por ejemplo, este año tenemos más episodios de intrusión del Sáhara que el año pasado.

2025eko datuei dagokienez, 2021etik 2024rako batez bestekoaren azpitik egon gara, baina 2024ko balioen gainetik. Ategorrietan 2025ean ikusitako balioak zuzentaraukoak baino pixka bat handiagoak dira.

En cuanto a los datos de 2025, hemos estado por debajo de del promedio del 2021 a 2024, pero por encima respecto a los valores del 2024. Los valores observados en Ategorrieta en 2025 son ligeramente superiores a los de la directiva.

Estazio gehienetan igoera bat egon da aurreko urtearekiko baina lau urteko promedioarekiko jeitxiera bat egon da.

El menor aumento de $PM_{10}$ se observa en la estación de Easo.

$PM_{2,5}$maileei dagokienean, kasu guztietan zuzentarauarekiko azpitik egongo ginateke baina OMEren gida-balioak betetzetik urrun. 2024rekiko zertxobait emendatu da baina 4 urteekiko Eason eta Tolosa hiribidean jaitsiera bat izan da.

En cuanto a los niveles $PM_{2,5}$, en todos los casos estaríamos por debajo de la directiva, pero lejos del cumplimiento de los valores guía de la OMS. Se ha incrementado ligeramente respecto a 2024, pero ha habido un descenso respecto a los 4 años en Easo y en la avenida de Tolosa.

Laburbilduz, konklusio fidagarri bat izateko urtebeteko datuak beharko ditugu. $NO_2$ IGEn nabarmen jaitsi da, aurreko urtearekin konparatuz % 13 eta 4 urteko denboraldiarekin konparatuz % 26. Urtea amaitzeko, Easoko estazioan zuzentarauak ezarritako balioak betetzea espero da.

En resumen, para tener una conclusión fiable necesitaremos un año entero de datos. En la ZBE el NO2 ha disminuido considerablemente, un 13% respecto al año anterior y un 26% respecto a la temporada de 4 años. Se espera terminar el año con el cumplimiento en la estación de Easo del los valores establecidos por la directiva.

Partikulei dagokienez, $PM_{10}$ buruz igoera txikiena Eason ikusten da.

En cuanto a las partículas, la menor subida de $PM_{10}$ se observa en Easo.

Airearen kalitatea neurtzeko instalatutako sentsoreei dagokienez, datuak ez dira oso koherenteak, eta, beraz, ezin da ondorio zuzenik atera. Metrika hobetzeko modua aztertzen ari dira, kalitate-berme handiagoak eskaini ahal izateko.

Sobre los sensores instalados para medición de calidad del aire los datos no son muy coherentes, por lo que no se pueden sacar conclusiones correctas. Se está estudiando la forma de mejorar la métrica para que puedan ofrecer mayores garantías de calidad.

Kalapieko ordezkariak aipatu du Marrutxipiko sarrerarekin Ategorrietako aire kalitatea okertu dela.

El representante de Kalapie comenta que con la entrada a Marrutxipi ha empeorado la calidad del aire en Ategorrieta.

Zinegotziak erantzun dio zirkulazioa 30 km/ orduko mugatuta hobetuko dela.

El concejal responde que se mejorará el tráfico limitando a 30 km/h.

Aranzadiko ordezkariak galdetu du Zaragoza Plazako estazioa ea ordezkatuko den.

El representante de Aranzadi pregunta si se va a sustituir la estación de la Plaza Zaragoza.

Ingurumen Osasunaren eta Iraunkortasunaren zerbitzuburuak erantzun dio hori Easokoarengatik ordezkatu zela. Badirudi estazio gutxi ditugula hirian, baina hiriko biztanle kopurua aztertuta dagokigun baino estazio kopuru altuagoa dugu.

La jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad le responde que esto se sustituyó por la de Easo. Pudiera parecer que tenemos pocas estaciones en la ciudad, para el número de habitantes de la ciudad tenemos más estaciones de las que nos corresponden.

Ekologista Martxan-eko ordezkariak aipatu du ikastetxeetan neurketak egiteko kanpaina batekin dabiltzala. Donostian ere egingo da eta informazioa igorriko dutela.

El representante de Ekologistak Martxan comenta que están desarrollando con una campaña para hacer mediciones en los colegios. En Donostia también se hará y pasarán la información.

Zerbitzuburuak erantzun dio kanpaina hau oso ondo etorri zaigula. Orain arte, herritarren iritziz, hiriko airearen kalitatea oso ona zen, kostaldeko hiria zelako. Tokiko prentsan argitaratutako artikuluen ondoren, ez da hainbeste entzuten Donostian airearen kalitate bikaina dugunik.

La jefa del Servicio le responde que esta campaña nos ha venido muy bien. Hasta ahora la opinión de la ciudadanía era que la calidad del aire de la ciudad era muy buena por ser una ciudad costera. Después de los artículos publicados en prensa local, ya no se oye tanto que en Donostia tengamos una calidad del aire excelente.

Hala ere, kontuan izan behar da Ekologistak Martxan taldearen azterlana herritarren zientzia ikerketa dela eta ikerketa puntuala dela. Azterlan mota horiek sustatzen dituen erakunde berak adierazi du garatutako metodologia ezin dela erabili airearen kalitatearen urteko ebaluazioak egiteko.

Sin embargo, hay que tener en cuenta que el estudio de Ekologistak Martxan es un estudio de ciencia ciudadana y es una investigación puntual. La misma entidad que fomenta este tipo de estudios indica que la metodología desarrollada no pueden ser utilizada para hacer evaluaciones anuales de calidad del aire.

Zuzendariak ere aipatu du ingurumen hezkuntzari buruzko programak direla, Ministerioaren babesarekin.

El director también comenta que son programas de educación ambiental con el apoyo del Ministerio.

Guztiak ados egon dira ikerketa horiek dituzten onura eta mugekin.

Todos están de acuerdo en las ventajas y limitaciones de estos estudios.

Eguzkiko ordezkariak aipatu nahi du aurten udalak abisuak eman dituela “gehiegizko partikula esekiengatik”. Aspaldi eskatu zen hori eta beraz eskertu egin du.

El representante de Eguzki quiere comentar que este año el ayuntamiento ha emitido avisos “por exceso de particulas en suspensión”. Eso se pidió hace tiempo y por lo tanto lo agradece.

Osasun eta Ingurumeneko zuzendariak erantzun dio sare baten barruan gaudela eta abisua jaso bezain laster zabaltzen dugula.

El director de Sanidad y Medio Ambiente responde que estamos dentro de una red y lo difundimos en cuanto recibimos el aviso.

Zinegotziak esan du airearen kalitate txarreko iraupen laburreko gertakarien protokoloa amaitzen ari garela, eta helburua dela 2026 amaierako protokoloa onartuta izatea.

El concejal comenta que estamos finalizando el protocolo de incidentes de mala calidad del aire de corta duración, y el objetivo es tener aprobado el protocolo de finales de 2026.

Eguzkiko ordezkariak MOEren parametroak erabiltzea positiboa ikusti du.

El representante de Eguzki ve positivo el uso de los parámetros de la OMS.

Ekologistak Martxan-ek ere gogorarazi du haiek eskaera egin zutela airearen kalitate-indizeen (AKI) balorazioa zuzentarauak ezarritako parametroen arabera egiteko, eta iraupen laburreko airearen kalitate txarreko gertakarietarako protokoloen garrantzia azpimarratu dute.

Ekologistak Martxan también recuerda que ellos hicieron solicitud para que la valoración de los índices de calidad del aire (ICAs) fuera en base a los parámetros establecidos por la directiva y subrayan la importacia de los protocolos para episodios de mala calidad del aire de corta duración.

Ingurumen Osasun eta Jasangarritasun Zerbitzuko buruak adierazi du udalaren webgunea aldatu dela AKIen

La jefa del Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad comenta que se ha modificado la web municipal para incluir

balorazioa zuzentarauaren arabera sartzeko, gaur egun indarrean dagoen legean sartu beharrean, laster transposizioa egin beharko baita. Eusko Jaurlaritzak argitaratzen dituen AKIak aldatzeko asmoa ere badu.

**5. Galde-eskeak**

Eguzkik Agitiko gaiari heldu dio.

Azken bileratik pozik atera zirela adierazi dute. Gainera, Batzar Nagusietan erabaki berberak hartu ziren. Maiatzean, enpresa berri batek Agitiren instalazioak algak hazteko erabiltzea proposatu du, eta proiektu hori aurrera aterako balitz, ez litzateke posible izango kala ingurumenaren aldetik lehengoratzea.

Udalaren eskumena ez den arren, argi utzi nahi du oso kezkatuta daudela. Kokalekuan mugimenduak hauteman dira (urriaren 4an hasi ziren obra batzuekin, itxiturekin, garbiketarekin eta abarrekin), obra-baimenik izan gabe. Eguzkik informazioa eskatu zion udalari eta horretarako udal baimenik ez zutela adierazi zitzaien. Gero, urriaren 15ean, URAk idazki bat egin zuen ekimena babesteko, Eguzkik salaketa jarri eta 11 egunera.

Gainera, esan zen Cullmanor desagertu egin zela, eta, beraz, ez da ulertzen lan horietan aritzea enpresa berria, maiatzean eratua, bereak ez diren lurretan.

Azpimarratu duenez, bitxia da URAk 2025eko proposamenari buruzko aldeko idazkia egitea; izan ere, 2017an, ezezkoa eman zitzaion kokalekua berraktibatzeko proposamen bati. Eguzkiren arabera, badirudi mugimendu horien helburua lekua birgaitzea oztopatzea dela.

Eguzkiren eskaera argia da: Agitiko kala berreskuratzeko proiektuarekin jarraitzea eta udalak helburu horrekin lan egitea, jarrera proaktiboan.

Aranzadiko ordezkariak hegoaldeko igelaren inguruan egin zuen ikerketa gogoratu du eta inguru horretan zegoen putzu bat aipatu du. Putzu hori Peru erretegiak lursaila saldu ondoren desagertu zen. Lursailaren jabea nor den galdetu dio bere buruari.

Eguzkik eskatu du lursail hori noren izenean dagoen ikertzeko.

Bilduko ordezkariak aste horretako udalbatzara mozio bat eramango duela aipatu du, erabilera ekonomikoa ez baimentzeko. Gainera, badirudi algak ekoizteaz gain, jarduera zabaltzeko arriskua dagoela, proposamenean gastronomia eta wellness gaiak aipatzen baitira. Horrek jarduerraren inpaktua areagotuko luke Agitiko kalan.

la valoración de los ICAs en función de la directiva en vez de en la ley actualmente vigente que deberá ser transpuesta en breve. El GV también tiene intención de modificar los ICAs que publica.

**5. Ruegos y preguntas**

Eguzki aborda el tema de Agiti.

Indican que salieron contentos de la última reunión. Además, en las Juntas Generales se adoptaron las mismas decisiones. En mayo, una nueva empresa ha propuesto utilizar las instalaciones de Agiti para el cultivo de algas y si eso fuera adelante la recuperación ambiental de la cala no sería factible.

Aunque no es sólo competencia municipal, se quiere dejar claro que están muy preocupados. Se han detectado movimientos en el emplazamiento (el 4 de octubre han comenzado con algunas obras, cierres, limpieza, etc.) sin tener autorización de obra. Eguzki solicitó información al ayuntamiento y se les indicó que no disponían de autorización municipal para ello. Luego el 15 de octubre URA realiza un escrito apoyando la iniciativa 11 días después de la denuncia de Eguzki.

Además se dijo que Cullmanor había desaparecido, así que no se entiende que se dedique a estos trabajos la nueva empresa, constituida en mayo, en terrenos que no son suyos.

Subraya que es curioso que URA haga el escrito favorable sobre la propuesta de 2025 cuando en 2017, se incoó uno negativo para una propuesta de reactivar el emplazamiento. Según Eguzki, pareciera que estos movimientos tienen como fin evitar la rehabilitación del lugar.

La petición de Eguzki es clara: continuar con el proyecto de recuperación de la cala de Agiti y que el ayuntamiento trabaje con ese objetivo, en una actitud proactiva.

El representante de Aranzadi recuerda el estudio que hizo sobre la ranita meridional y menciona una charca que había en la zona. Esta charca desapareció tras la venta de la parcela por parte del Asador Peru. Se pregunta quien es el propietario de la parcela.

Eguzki solicita que se investigue a nombre de quien está esa parcela.

El representante de Bildu menciona que llevará al pleno municipal de esa semana una moción para que no se autorice su uso económico. Además, parece que más allá de la producción de algas existe el riesgo de que la actividad se extienda ya que se mencionan temas gastronómicos y de wellness, en la propuesta. Esto

Incrementaría el impacto de la actividad en la cala de Agiti.

Aipatutako guztia ikusita, zinegotziak adierazi du akordioa hartu zenetik Eusko Jaurlaritzarekin eta URArekin bilera bat egiteko konpromisoa hartu zela. Bilera 2025eko azaroaren 12rako programatu da.

El concejal a la vista de todo lo comentado manifiesta que desde que se adoptó el acuerdo, se tomó el compromiso de celebrar una reunión con el GV y con URA. Está reunión se ha programado para 12 de noviembre de 2025.

Eguzkiren galderaren ondoren, zinegotziak adierazi du udalak berriro helaraziko duela maiatzeko osoko bilkuran jada adostu zen konpromisoa, espazioa berreskuratzeko helburuarekin. Adierazi du ez dakiela Eguzkiko ordezkariak aipatzen duen obra.

Tras la pregunta de Eguzki el concejal manifiesta que el ayuntamiento volverá a trasladar el compromiso que ya se acordó en el pleno de mayo, con el objetivo de la recuperación del espacio. Manifiesta desconocer la obra que comenta el representante de Eguzki.

Ingurumen Osasuneko eta Jasangarritasuneko zerbitzuburuak adierazi du jendaurrean jarritako informazioa aztertu dela. Gauza garrantzitsuenetako bat da ingurumen inpaktuaren ebaluazioa behar duela. Eguzkik adierazi du azaldutako dokumentazioan ez dela agertzen.

La jefa de servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad manifiesta que se ha analizado la información puesta en exposición pública. Una de los aspectos más reseñables es que una actuación de este estilo necesita la evaluación de impacto ambiental. Eguzki señala que en la documentación expuesta no aparece.

Zerbitzuburuak adierazi du IIEko (Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa) prozesuan kontsultak egin behar zitzaizkiela administrazioei, eta hori ere ez dagoela jasota. Gainera, URAren txostenak proiektu jakin bati egiten dio erreferentzia, eta ez dator guztiz bat jendaurrean dagoenarekin.

La jefa de servicio indica que en el proceso de EIA (Evaluación de Estudio Ambiental) tenían que haber hecho consultas a las diversas administraciones y tampoco consta. Además, el informe de URA hace referencia a un proyecto determinado y no concuerda del todo con el que está en exposición pública.

Emauseko ordezkariak galdetu du hondakinen kudeaketa gaia batzorde horretara ekar dezakeen.

El representante de Emaús pregunta si puede traer el tema de la gestión de residuos a esa comisión.

Zinegotziak erantzun dio ez dagoela inongo arazorik horretarako. Alderantziz, ingurumenean duen eragina zuzena delako, garrantzitsua da oso.

El concejal responde que no hay ningún problema para ello. Al contrario, porque su impacto en el medio ambiente es directo, es muy importante.

Ekologistak Martxan-eko ordezkariak Eusko Jaurlaritzan izapidetzen ari den etxebizitzaren legea aipatu du. Lege hau onartu edo ez alde batera utzita, udalerrian ingurumen-kontrolak egiten jarraitzeko eskatu du (ingurumen-inpaktuaren txostena, lurzoru kutsatuak...), donostiarren osasuna babesteko, legeak iskin egiten baitie.

El representante de Ekologistak Martxan, hace referencia a la ley de vivienda que se encuentra en tramitación en el GV. Solicita que independientemente de que se apruebe esta ley, en el municipio se sigan haciendo los controles medioambientales (informe de impacto ambiental, suelos contaminados...) para preservar la salud de los donostiarras, a la vista de que la ley se lo va a saltar.

Lesakatik Oiartzunera doazen egitura eolikoak ere aipatu ditu. Artikutzaren ondotik igarotzen dira, eta proiektuan arreta jartzeko eskatu du, eraginik izan dezakeen ikusteko.

También menciona las estructuras eólicas que van desde Lesaka a Oiartzun. Pasan al lado de Artikutza y solicita se ponga atención en el proyecto por si puede tener alguna afección.

Zuzendariak adierazi du zenbait autonomia-erkidegori eragiten dienean eskumena Estatuarena dela, baina kontsultak egin behar dituztela. Zerbitzuburuak baieztatu du ez dutela ezer jakinarazi. Era berean, Nafarroako Gobernuari eta Goizuetako Udalari kontsulta egin zaie, eta haiek ere ez dute kontsultarik jaso Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio prozesuan.

El director señala que cuando afecta a varias CA la competencia es estatal, si bien tienen que hacer consultas. La jefa de Servicio confirma que no han comunicado nada. Asimismo, se ha consultado al Gobierno de Navarra y al Ayuntamiento de Goizueta, y ellos tampoco han recibido consulta en el proceso de Evaluación de Impacto Ambiental.

Era berean, Aranzadiko ordezkariak galdetu du txakurrak hondartzara sartzeari buruzko prentsaren albisteari buruz.

También pregunta el representante de Aranzadi por la noticia de la prensa que hace referencia al acceso de los

Mandasko Dukearen Pasealekua, 12 | Tel. 010 - 943481000 | www.donostia.eus
20012 Donostia / San Sebastián

Zinegotziak azaldu dio herritarrei kontsulta publikoa egiteko epea ireki dela. Proposamena araudia aldatzea da, txakurrak 21:00etatik 24:00etara hondartzetan sartu ahal izateko. Hondartza guztietan eta bozgorailuetan erretzea debekatzea ere aurreikusten da.

perros a la playa. El concejal le explica que se ha abierto un periodo de consulta pública a la ciudadanía para proceder a modificar la Ordenanza de Playas. La propuesta es cambiar la normativa para que los perros puedan entrar en las playas de 21:00 a 24:00. También se prevé prohibir fumar en todas las playas y los altavoces.

Aranzadiko ordezkariak esan du dagoeneko aurreikusita dagoela Hondartzen Ordenantzan, 8.2 h) artikuluan, eta, beraz, ez duela ulertzen aldaketa egin behar denik. Halaber, txakurrak sartzeari buruz duen iritzia adierazi du, eta asmo horretan atzera egiteko eskatu du. Gainera, gogoratu du proposamenak gizartearen gaitzespen garrantzitsua duela.

El representante de Aranzadi dice que ya está previsto en la Ordenanza de Playas, en el art 8.2 h) por lo que no entiende a qué se debe la modificación. Manifiesta también su opinión sobre el acceso de los perros, solicitando que se eche para atrás la modificación de la Ordenanza. Además recuerda que la propuesta tiene un rechazo social muy importante.

Zinegotziak adierazi du jasotzen diren proposamen, alegazio eta gainerako guztiak aztertuko direla.

El concejal señala que se estudiarán todas las propuestas, alegaciones y demás que se reciban.

PPko ordezkaria kezkatuta agertu da dago hondarra nola garbituko den.. Ekologistak Martxan-eko ordezkariak azpimarratu du makina ez dela inoiz trinkotutako eremutik pasatzen, eta, hain zuzen ere, ezin dela ondo garbitu.

La representante del PP muestra su preocupación por cómo se realizará la limpieza de la arena. El representante de Ekologistak Martxan recalca que la máquina no pasa nunca por la zona compactada y efectivamente no es posible una buena limpieza.

Eguzkiko ordezkariak neurriak hartzeko eskatu du, txoriek GOEko beirateen aurka talka egiten dutela antzeman delako.

El representante de Eguzki solicita que se adopten medidas porque se ha detectado que los pájaros se chocan contra las cristaleras del GOE.

Osasun eta Ingurumen zuzendariak kexa jaso du eta GOErekin harremanetan jarriko dira.

El director de Salud y Medio Ambiente recoge la queja y que se pondrán en contacto con GOE.